

EAEko Mahai Orokorraren bilera: Eusko Jaurlaritzaren aldetik negoziazioari ez eta murrizketei bai

✖ Atzo Gasteizen, Mahai Orokorraren bileraren aurrean egindako konzentrazioaren irudia.

Atzo berriro ere bere menpean dauden langileen lan baldintzak negoziatzeko borondate falta argia adierazi du Eusko Jaurlaritzak. Izan ere, ez du elementu berririk planteatu nahi izan Mahai Orokorraren bileran. LABek planteatutako enpleguaren arazoa konpontzeko, eta lan baldintzak eta eros-ahalmena berreskuratzeko planen inguruan ez du ezer entzun nahi izan administrazioak. Entzungorrrarena ere egin du gaixotasunen jarraipena mutualitateen orde z osasun zerbitzu publikoak egitearen proposamenaren aurrean. Bileraren aurretik, elkarretaratze bat egin dugu Gasteizen, ELAekin batera, "Zerbitzu publikoak garatu. Lan baldintzak hobetu. Enplegua egonkortu" leloarekin, Eusko Jaurlaritzaren egoitzaren aurrean.

Aste honetan, Jaurlaritzak ia 1.000 milioi gehiagoren diru-bilketa egongo dela jendaurrean ozenki iragarri duenean, ez du zerbitzu publikoak hobetzeko proposamen berri bat ere egin. Urkulluk dagoeneko erabaki baitu bankuekin duen zorra kitatzeko erabiliko duela, ez ordea bere langileekin duen zorra arintzeko. Aste honetan ere Madrilek aurrekontuak luzatuko dituela jakin da, eta horrek Jaurlaritzaren proposamenetan izango duen eraginaz aipamenik ez. PNVk eta PPK politika ekonomiko bera dutelako, eta estrategia bera dutelako, eta langileok erosahalmena are gehiago galduko dugu. Ez dira muga legalak Jaurlaritzak dituenak, baizik eta borondate mugak.

Gaur alferrik galdutako negoziazorako aukera Eusko Jaurlaritzak propagandarako erabiliko duela argi dugu. Bilera antzuen dinamika bat negoziatzeko borondate bezala erabiliko du, propaganda hutsa alegia. Bitartean murrizketak egiten jarraituko du.